PROPOSAMENAK AURKEZTEA
www.weracongress2027.es
Aurkezteko azken eguna: 2026ko azaroaren 15a, 23:59, Erdialdeko Europako ordua (CET)

World Education Research Association (WERA) delakoak, hau da, Hezkuntza Ikerketarako Munduko Elkarteak, WERAren biltzarrerako komunikazioak, posterrak eta sinposioak aurkeztera gonbidatzen zaituzte. 2027ko ekainaren 21ean, aurre-biltzarra egingo da, eta biltzarra bera 22tik 24ra izango da, Deustuko Unibertsitatean (Bilbo). WERA elkarteak hezkuntza-ikerketako elkarte nazional, eskualdeko eta espezializatu nagusiak biltzen ditu. Ezagutzak partekatu, sareak garatu, gaitasunak indartzen lagundu eta hezkuntza-ikerketaren erabilera eta aplikazioa sustatzen ditu mundu osoan. WERAk ekimen globalak jarri nahi ditu martxan, edozein elkartek bere herrialde, eskualde edo espezializazio-arloan lortu duena baino haratago joateko helburuarekin. WERAk kide indibidualak eta instituzionalak ere baditu.

WERA biltzarraren 2027ko gaia: Testuinguru asko, ikerketa globala: hezkuntza-ikerketa elkarrekin birpentsatuz.
Mundu osoan, hainbat ikaskuntza-testuingurutako hezkuntza-ikerketan, harrigarriro antzekoak diren gaiak jorratzen dira, politiketarako eta praktikarako esanguratsua izateko xedearekin. Gaia edozein dela ere —batzuk bakarrik aipatzearren, sarbidea eta ekitatea, aniztasuna, kultura, balioak eta nortasuna, adimen artifiziala, zientzien irakaskuntza eta ikaskuntza, laguntza teknologikoarekin ikastea, irakaskuntzaren eraginkortasuna, politiken eragina edo lanbide-heziketa—, galdera eta kezka komunek ikertzera bultzatzen gaituzte. Akademikoei eta ikasleei gero eta erakargarriagoa iruditzen zaie beren lana beste herrialde, kultura eta testuinguru batzuetan egindako ikerketekin lotzea. Halaber, ezagutza eraikitzeko eta aurkikuntzen eta inferentzien irmotasuna kritikoki aztertzeko gero eta interes handiagoa dago, hainbat testuinguru globaletan egindako azterlanei esker aberasten diren ikuspegi askotatik abiatuta.

WERA 2027 biltzarra mundu mailako topaketa zientifiko paregabea da, WERAk zuzenean Bilbon (Espainia) deitua, eta Elkartearen 17 urteko historian WERAren bigarren biltzarra baino ez da izango. Biltzarrak hezkuntza-ikerketaren nazioarteko komunitatea biltzen du, hainbat herrialde, eskualde, diziplina eta ikerketa-tradiziotako ikertzaileak elkartuz. Urtero egiten diren WERA Focal Meetings topaketek ez bezala, biltzarra ez da WERAko kide diren elkarteekin elkarlanean antolatzen. **Espazio berezia eskaintzen die nazioarteko, konparaziozko, kulturarteko eta nazioz gaindiko ikuspegietatik ezagutza aurreratzearen alde konprometitutako ikertzaileei.** Biltzarrean ikerketa-tradizio, metodologia eta testuinguru anitzek bat egiten dute, eta, horri esker, nazio- eta diziplina-mugak gainditzen dituzten lankidetzak sustatzen dira.

Horregatik, 2027ko WERA biltzarrak komunikazioak, posterrak eta sinposioak aurkezteko gonbita egiten die ezagutzan aurrerapenak izaten lagundu nahi dutenei eta ikuspegi globalarekin hezkuntza-ikerketaren ikuskera berri bat bultzatu nahi dutenei. WERAren bigarren biltzar honen helburua, bereziki, nazioarteko, nazioz gaindiko eta konparatutako ekoizpen zientifiko zabala erakartzea da, bai eta azterlan mota horien oinarri diren metodologiak, neurriak eta ikerketa-ikuspegiak kritikoki aztertzen dituzten aurkezpenak bultzatzea ere. Herrialdeen eta eskualdeen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertu eta azaltzen dituzten proposamenak nahi dira. Era berean, ontzat hartzen dira hezkuntza-ikerketan aurrera egiteko eta komunikazioaren, elkarlanaren eta sareen sorreraren arloan berrikuntzak sustatzeko dauden aukera edo muga globalak jorratzen dituzten proposamenak.

2027ko WERA biltzarraren irismena

WERA biltzarrak azterlan-espektro zabala du. Azterlanok, gai orokorraren esparruan, bizi-ziklo osoa barne hartzen dute, hau da, lehen haurtzaroko hezkuntzatik hasi eta helduen enplegu eta hezkuntzarako prestakuntzaraino, eta hezkuntzako eta ikaskuntzako testuinguru formaletan zein informaletan garatzen dira. Biltzarrean, hitzaldiak, posterrak eta sinposioak nabarmentzen dira mundu mailako ikuspegi batetik. Oro har, WERA biltzarrak ikusgarritasuna eman nahi die konparaziozko, kulturarteko, nazioarteko edo nazioz gaindiko ikerketei, haien kontzeptualizazioa, irismena eta diseinuari dagokienez. Hitzaldi eta posterren proposamenek zenbait irizpide bete beharko dituzte. Sinposioen proposamenetan zentro edo herrialde bakar batean egindako lanak sar daitezke, betiere hainbat herrialdetako lanak aurkezten badira eta sinposioaren helburuak mundu mailako gaien inguruan antolatzen badira. Hitzaldi, poster eta sinposioen proposamenei azken hamarkadan mundu mailan sortu den ezagutza laburbiltzeko eta etorkizuneko joerak eta ikerketa-ildoak aurreratzeko deia egiten zaie. Ez dago mugarik kontuan har daitezkeen hezkuntza-ikerketako gaiei dagokienez. Hala ere, lehentasuna emango zaie mundu mailan garrantzi handia duten joerak, gaiak eta erronkak jorratzen dituzten ikerketak eta emaitzak aurkezten dituzten proposamenei.

Nork aurkez ditzake proposamenak?

2027ko WERA biltzarrean, hitzaldiak, posterrak eta sinposioen proposamenak aurkezteko deia egiten zaie hezkuntza-ikerketan mundu mailako ikuspegia duten ikertzaile eta graduondoko ikasleei —azken horiek ikasketen etapa aurreratuetan egon beharko dute—. Proposamenak hitzaldi edo posterren saio batean sartzeko aurkeztu ahal izango dira. Halaber, sinposio bat antolatu nahi dutenei proposamenak aurkezteko gonbita egiten zaie. Ebaluatzeko bidaltzen diren laburpenak ingelesez, gaztelaniaz edo euskaraz egon daitezke.

2027ko WERA biltzarrerako proposamenak aurkezteko jarraibideak

Komunikazio, poster eta sinposioak ingelesez, gaztelaniaz edo euskaraz bidal daitezke, WERA biltzarraren webguneko online atariaren bidez (**www.weracongress2027.es**). Proposamenak online bakarrik bidali ahal izango dira. 2027ko WERA biltzarrerako proposamen bat bidaltzeko, ez da beharrezkoa WERAko kide izatea, ezta kide egitea ere. Proposamena bidaltzeko, jo "**Komunikazio bidalketa**" orrira eta egin klik "**Euskara**" dioen botoian. Ondoren, bidali komunikazio, poster edo sinposioaren laburpena.

Aurkezteko epea **2026ko azaroaren 15ean** amaituko da, **23:59an, Europa Erdialdeko orduan.**

Komunikazioak aurkezteko jarraibideak:

Komunikazioen laburpenak 500 hitz ingurukoak izango dira, eta atal hauek izango dituzte:
a) "Proposamenaren informazioa/Ikerketa/Galderak eta ikuspegi teorikoa" (250 hitz); b) "Metodoak" (100 hitz); eta c) "Ondorioak eta emaitzak, garrantzi zientifikoa" (150 hitz). Komunikazioaren izenburua, egileei buruzko informazioa eta bestelako datu egokiak ere gehitu beharko dira. Laburpenean hamar erreferentzia bibliografiko sartu ahal izango dira gehienez, eta horiek erreferentzia-zerrendan agertu beharko dira. Modu berean, argitaratzeko egokia den 150 hitzeko laburpena bidali beharko da. Hainbat egile dituzten komunikazioetan, hura bidaltzeko ardura lehen egilearena izango da, nahiz eta egile hori ez izan komunikazioa biltzarrean aurkezten duen pertsona.

Posterrak aurkezteko jarraibideak:

Posterren saioetan, ikerketa baten emaitzak bisualki aurkeztu daitezke, eta, gainera, lanen aurkezleek ikerketari eta haren emaitzei buruz eztabaidatu dezakete. Posterren proposamenetarako baldintzak komunikazioen proposamenetakoen antzekoak dira. Alegia, gehienez 500 hitzeko laburpen bat prestatu beharko da, eta, bertan, poster formatuan aurkezteko bereziki egokiak diren ikerketa-elementu espezifikoak jaso beharko dira. Posterren laburpenak 500 hitz ingurukoak izango dira, eta atal hauek izango dituzte:
a) "Proposamenaren informazioa/Ikerketa/Galderak eta ikuspegi teorikoa" (250 hitz); b) "Metodoak" (100 hitz); eta c) "Ondorioak eta emaitzak, garrantzi zientifikoa" (150 hitz). Posterraren izenburua, egileei buruzko informazioa eta bestelako datu egokiak ere gehitu beharko dira.

Laburpenean hamar erreferentzia bibliografiko sartu ahal izango dira gehienez, eta horiek erreferentzia-zerrendan agertu beharko dira. Era berean, argitaratzeko egokia den 150 hitzeko laburpena txertatu beharko da. Poster formatuan aurkezteko bereziki egokiak izan daitezke hauek: hasierako emaitzak aurkezten dituzten lanak; garapenaren lehen etapetan dauden lanak, eta emaitzak jakinarazteko helburuarekin datuak aztertzeko metodoak, baliabide bisualak edo formatu praktiko eta interaktiboak bereziki baliagarri zaizkien azterlanak.

Sinposioak aurkezteko jarraibideak:
Komunikazio bakar batekin ez bezala, sinposio batekin, nazioarteko, konparaziozko edo mundu mailako ikuspegitik heldu ahal zaio hezkuntza-ikerketako arazo edo gai espezifiko bati, eta, horrez gain, hainbat ikuspegi txertatu, eztabaida sakona bultzatu, eta ezagutza eta esperientzia espezializatu ugari bildu daitezke. Sinposioaren laburpenak gehienez 250 hitz izango ditu. Proposamenak, orobat, sinposioaren parte den komunikazio bakoitzaren 150 hitzeko laburpena jaso beharko du, baita gehienez hamar erreferentzia bibliografiko ere, komunikazio bakoitzerako. Laburpenetan aipatzen diren erreferentziak erreferentzia-zerrendan agertu beharko dira. Sinposioen proposamenak sinposioen antolatzaileek aurkeztuko dituzte. Antolatzaileak saioaren koordinatzaile, parte-hartzaile edo esatari ere izan ahalko dira. Sinposio bakoitzak gutxienez 3 eta gehienez 5 proposamen/lan izan ditzake, koordinatzaileaz eta esatariaz gain.

WERAren doktoregoko eta ibilbide akademikoaren hasierako etapetako ikertzaileen (DEC) sarerako proposamenen aurkezpena
WERAren DEC sarean, proposamenak aurkezteko gonbita egiten zaie masterreko ikertzaileei, doktoregaiak eta ikertzaile hasiberriei, kolektibo horri zuzendutako programa espezifiko batean. Programa hau WERAren programa nagusiarekin batera garatzen da, eta ikertzaile hasiberriei beren lana partekatzeko, iruzkin konstruktiboak jasotzeko, sare profesionalak eraikitzeko eta nazioarteko ikerketa-komunitatearekin elkarreragiteko ingurune bat eskaintzeko dago diseinatuta. Proposamenen artean, amaitutako ikerketa-proiektuak, ikerketa-proposamenak, aurretiazko emaitzak, azterlan pilotuak eta azterketa bibliografikoak egon daitezke.

Proposamenak aurkezteko baldintzak programa nagusiko berberak dira. Hala ere, aribideko azterlanen kasuan, proposamenaren azken atalean proposamen-ondorioak, aurretiazko emaitzak eta izan dezaketen garrantzi zientifikoa jaso ahal izango dira. Horrez gain, DEC sarean, *networking*-erako eta tutoretzarako aukera espezifikoak egongo dira goragoko mailako akademikoekin eta maila berekoekin.

Proposamenak formatu hauetan onartzen dira:
- Poster-aurkezpenak
- Txosten-aurkezpenak
- *Lightning talks* (5-10 diapositiba dituzten 5 minutuko aurkezpenak)

Lightning talk-etarako jarraibideak (DEC sarearen programa soilik)
Lightning talks delakoen bidez, masterreko ikertzaileek, doktoregaiek eta ikertzaile hasiberriek beren ikerketak, ideia berritzaileak, aribideko lanak eta aurretiazko emaitzak aurkeztu ditzakete formatu labur eta erakargarrian. *Lightning talk*-etarako proposamenek 500 hitz inguruko laburpena izan behar dute, atal hauekin: a) “Proposamenaren informazioa/Ikerketa-galderak eta ikuspegi teorikoa” (250 hitz); b) “Metodoak” (100 hitz); eta c) “Ondorioa eta emaitzak/Garrantzi zientifikoa (proposamen-emaitzak izan daitezke)” (150 hitz). Laburpenean hamar erreferentzia sartu ahal izango dira gehienez, eta horiek erreferentzia-zerrendan agertu beharko dira. Era berean, argitaratzeko egokia den 150 hitzeko laburpena aurkeztu behar da. *Lightning talk* onartuak 5 minutuko aurkezpenak izango dira, eta, horiek egiteko, 5 minutura tenporizatutako 5-10 diapositiba erabiliko dira. *Lightning talks* delakoak egokiak dira garapen fase guztietan dauden ikerketa-proiektuetarako.

Aurkezpenak egiteko epea **2026ko azaroaren 15ean, 23:59an (Europa Erdialdeko ordua, CET) amaituko da.**

Proposamenak maila berekoen artean berrikustea
Proposamen guztiak maila berekoen artean berrikusiko dira WERAren Berrikuspen Batzordean. Hauek dira irizpideak, besteak beste: ikerketa-galderek mundu mailan duten garrantzia; metodologiaren irmotasuna; ikerketa-galderetarako metodoen egokitasuna; emaitzen garrantzia, eta ikerketaren ondorio eta inplikazioen koherentzia eta argitasun orokorra.

Onartutako proposamenetarako jarraibideak
Proposamenak onartu diren ala ez **2027ko urtarrilaren 15a** baino lehen jakinaraziko da. Onartutako lanen eta posterren egileak eta onartutako sinposioetako parte-hartzaile guztiak 2027ko martxoaren 1a baino lehen erregistratu eta WERA biltzarrera bertaratuko direla espero da. Aurkezpen guztiak presentzialak dira; ez dago birtualki parte hartzeko aukerarik.

Erregistroa
Online eman daiteke izena, 2027ko WERA biltzarraren webgunean: **www.weracongress2027.es**. Aldez aurreko izen-ematea 2027ko martxoaren 1era arte dago zabalik. Tarifak murriztuak dira. Izena emateko ohiko epea, aldiz, 2027ko apirilaren 16an amaituko da. Tarifa osoak ordaindu beharko dira. Horrez gain, 2027ko WERA biltzarrean izena ematen dutenek urtebeteko doako bazkidetza indibiduala eskuratuko dute WERAn. Biltzarrera doazen egile guztiak aurkezletzat hartuko dira, eta 2027ko martxoaren 1a baino lehen eman beharko dute izena.

2027ko WERA biltzarrerako data garrantzitsuak

2026ko irailaren 15a	Proposamenak aurkezteko epearen irekiera
2026ko azaroaren 15a	Proposamenak aurkezteko epearen itxiera
2027ko urtarrilaren 15a	Erabakien jakinarazpena
2027ko martxoaren 1a	Aldez aurreko izen-ematerako azken eguna
2027ko martxoaren 1a	Aurkezteko ardura duten pertsona guztiek izena emateko azken eguna (programan sar daitezen)
2027ko martxoaren 30a	Egileei aurkezpenaren aurretiazko data eta ordua jakinaraztea
2027ko apirilaren 16a	Ohiko izen-ematerako azken eguna
2027ko ekainaren 21a	Biltzarraren aurreko tailerrak eta bisitak
2027ko ekainaren 22tik 24ra	2027ko WERA biltzarra

2027ko WERA biltzarrari buruzko informazio gehiago lortzeko (ostatu, tailer, bisita berezi, ekitaldi eta abarri buruzko informazioa barne), bisitatu biltzarraren webgunea: **www.weracongress2027.es**.

Proposamenen bidalketari, bidaiei, ostatuari eta/edo beste gai batzuei buruzko kontsultak egiteko, jar zaitez harremanetan 2027ko WERA biltzarrarekin eta bidali mezu elektroniko bat helbide honetara: **info@weracongress2027.es**.

WERA programako zuzendariak eta Batzorde Zientifikoa
Rocío García-Carrión, WERAko idazkari nagusia Joe O'Hara, WERAko presidentea
WERA Executive Committee
WERA Doctoral and Early Career Network (DEC) Chair